

Prensa-oharra

Euskadiko Arkitektura Institutuan, Donostian, 'Mies van der Rohe' saria lortu duen erakusketa ikusteko epea uztailaren 28ra arte luzatuko da



2019|07|17

> 'Tabula non rasa', Santa Teresa komentuan doan ikus daitekeena, irailaren 17tik 19ra arte ere irekiko da, etxebizitzari buruzko kurtsu bat dirauen bitartean. Anne Lacaton arkitekto frantziarra hizlari izango du kurtsuak, Europar Batasunaren sari ospetsua lortu zuen estudioaren kide dena.

'Tabula non rasa' erakusketa Euskadiko Arkitektura Institutu berrian (EAI) ikusi ahal izan ez duten pertsonak oraindik aukera izango dute uztailaren hurrengo bi asteetan zehar. Irekiera-epea luzatuko da; beraz, 14an itxi ordeaz, 28ra arte ikusgai egongo da. Ordutegi bera izango du: osteguna eta ostirala 17etatik 20etara, eta larunbata eta igandea 11etatik 20etara eta 17etatik 20etara.



Gainera, irailean ere bisitatu ahal izango da erakusketa, 17tik 19ra arte, 'RE-Vivienda: I Laboratorio de Vivienda en Euskadi' izeneko kurtsoa dirauen bitartean. Eusko Jaurlaritzak antolatuta eta Euskadiko Arkitektura Institutuaren (EAI) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Arkitektura Goi Eskolaren bitartez, hiru gai izango ditu ardatz: "habitataren birdentsifikazioa landa ingurunean, habitataren birdentsifikazioa hiri ingurunean eta habitataren esperimentaltasuna eta malgutasuna". Kurtsoa Mugak II. Nazioarteko Euskadiko Arkitektura Bienalaren aurreko denboraldian izango da.

Jardunaldien itxiera, irailaren 19an, Anne Lacaton-en esku egongo da. Hau Lacaton&Vassal estudio frantziarraren sortzaileetako bat da, eta aurten 'Mies van der Rohe' deritzon sari ospetsuaren irabazlea. EB-k haren arkitektura-ekoizpenaren kalitatea onesten du Bordeleko hiru erakin handien berrikuntzan.

Hain zuzen ere, estudio frantziarraren lan hori 'Tabula non rasa'-ren zati nagusia da, gune zaharkituen berrikuntza aldarrikatzen duena, eraisketa baztertuz.

Santa Teresa komentuko erakusketak hiru instalazioren bidez eraikinen bilakaerari buruzko hausnarketa planteatzen du, baita hiri-espazio eta espazio erakiei buruz ere. Denbora luzez, eraikinak bota egin dira eta beste batzuk eraiki, horrek dakarren kalte ekonomikoarekin, ingurumen kaltearekin eta hiri-identitate galerarekin. Gaur egun, ordea, gero eta kritika gehiago egiten zaizkio eraiketaren kultura horri. Gaur egun, arkitekto asko ari da ikertzen eraikinen berrikuntzaren eta eraldaketaren alorrean.

Informazio gehiago
Eduardo Ortiz de Arri
(647 770052)